# BALOREZKO PROPOSAMENA

**Ze behar edo arazo konpontzen ditugu?**

Alde batetik, Istripu ondorengo itxura-aldaketak zuzentzen ditugu, adibidez, zauri edo ebakien ondorengo markak (zikatrizak) leundu edo murriztu, kolore-aldaketak (hiperpigmentazioa / hipopigmentazioa) hobetu… Bestetik, autoestimoan eta ongizate pertsonalean ere laguntzen dugu, esaterako, istripua izan duen pertsonak berriz seguru eta eroso sentitu ahal izatea bere itxurarekin.

**Zer bereizten gaitu, eta,beraz, zergaitik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest?**

Ez gara estetika generiko bat, trauma edo istripuen ondoren sortzen diren beharrak ulertzen ditugu. Espezia.
izazio honek konfidantza eta segurtasun maila handiagoa ematen du. Guk azala, ehunak eta lesioaren egoera modu zehatzean aztertzen ditugu, eta horri egokitutako plana egiten dugu. Horrek emaitza zehatzagoak eta fidagarriagoak bermatzen ditu. Gure helburua ez da soilik "hobetzea", **pertsonaren aurpegia eta gorputza bere naturaltasunean berreskuratzea da**, eta hori bezero askorentzat oso garrantzitsua da ez nabaritzea tratatua izan dela. Horregatik izan liteke guri ordaintzeko prest egotea.